

Garbine Ubeda Goikoetxea

Médart doktoarearen bila

S

arritan, psikoterapeutarenean irudikatzen dut nire burua. Larruzko diban marroi batean etzanda ni, eta hura zertxobait atzerago, sofan jarrita, nire zintzurretik aterako diren disonantziak batzeko zain. *Les Psy* komikian bezala. Korapiloren bat askatze-komemioa, Médart doktoarearen kabinetetara heltzen den pertsonaia horietariko bat banintz bezala.

Ohiko txikieria mehatxagarririk horiek bultzatzen naute egoera horretan kokatzera, ia beti arrotz eta lekuz kanpo sentitu behar horrek, nire naturalean komunikatzeko inguru faltak... Bai... Euskalduna naiz, euskaldun axolatu eta minontzia, eta portaera arazoak ditut. Ez dut jendartean asmatzen. Jendarteak ez du nirekin asmatzen. Goi tentsioko postea dirudit.

“Jar zaitez luze, eta kontaiezadazu...” entzun nahi nioke atarikoan hizkuntza aldrebeskerietan doktoratutako balizko terapeuta. Bizi martxa aztoratu didan gertakariaren bat kontatuko nioke nik, eta hark, segidan, ondorioztatu ditudan sentipen ustelak samurtzeko gakoa emango lidake. Gidoi petraleko istorioak izango lirateke denak, zozoak, amaiera zuzentzea eskatzen dutenak. Hemen bat.

Orain dela gutxi mezutxo bat heldu zitzaidan sakelako telefonora. Dagoeneko puntu ugari nuela gogorarazten zidan nire hornitzaile Movistar-ek, nahi izan ezker aparatutxo berria jaso nezakeela doan, eta hurbiltzeko haien saltokiren batera.

“Zer demontre”, pentsatu nuen neure artean, tekletako zenbaki higatuei begira. Nire tramankulu zaharkituaren orde, erpuru bultzadatxo batez zabaltzen diren mini tresna dotore horietako bat imajinatu nuen eskuan. Klap, eta pantaila argitu. Klap, eta itxi eta blokatu. Nonahi gordetzen den arkakuso telematikoa, funtzionala, modernoa... “Noan albaite arinen”.

Etxera bidean, erremediorik gabe harrapatzen nauen likan erori nintzen haren aitzakian: Donostiako Garberan. Merkataritza gunea zeharkatzen



DANI BLANCO

duen korridorea zuzen hartu eta erdi parean aurkitu nuen Movistar denda. Segapotoa agerian, saltzaileetako bati hurbildu nintzaion:

–Kaixo, SMS bat jaso dut...

–*Para el carro* –bota zidan hark harrigarriki ozen, esaldia bukatzen uzteko ere presatuta– *que soy de León*.

Entzundakoa entzun orduko eskuinerantz zuzendu nuen bista, bezero batekin solasean ari zen bigarren saltzailearengana.

–*Y ella es de Colombia* –nire parekoak berriz ere, tentazioak ekiditeko tonu are txundigarriagoan.

Fale. Segundo-milarena ere eternala izan baitaiteke, surrealismo ukituz zipriztindutako film oso bat pasatu zitzaidan burutik. Londresko Picadilly inguruan imajinatu nuen neska leondarra, British Telecom-eko denda batean lanean. Jatorria bakean lagata, trakets baina barra-barra ari zitzaion hizketan beste neska bati, ingelesez jakina, nahiz eta bezero horrek, apropos erortzen utzitako berba solteengatik, leondarren hizkuntzan ondo asko zekiela adierazi. Ez nion ezer esan.

Euskaraz jarraitzea deliberatu nuen gero, poliki baina aurrera egitea, esan behar niona ulertzea horren zaila ez delakoan. Alabaina, tenteegi zegoen eta ni uzkuratzen hasi nintzen. Ez nintzen saiatu ere egin.

Besterik ere otu zitzaidan tximistak iraun zuen artean: neroni ere tentetzea, bezeroari eskaini beharreko arretaz ikastaro trinkoa gomendatzea... Praktikara eramango ez nuen matraka ugari. Horren orde, lepoko gogortuak laxatu, sakon arnastu eta politikoki zuzen ari denaren eitean, gazteleraz mintzatu nintzaion.

Eta, diot, interakzioa ez eteteko ahalegina egin zuena neu izan banintzen, eta egoera aldrebesari aurre egiteko pausua, amore eman, nik eman banuen, zergatik naiz neroni sentsazio txar hori barneratu duena, potrozorriaren pare sentitzen dena?

Horra hor on terapeutak argitu beharko lida-keena. ■

Merkataritza gunea zeharkatzen
duen korridorea zuzen hartu eta erdi
parean aurkitu nuen Movistar denda.

Segapotoa agerian, saltzaileetako
bati hurbildu nintzaion:

–Kaixo, SMS bat jaso dut...

–*Para el carro*

–bota zidan hark harrigarriki ozen,
esaldia bukatzen uzteko ere presatuta–
que soy de León